





## 82 Musika Hamabostaldia Quincena Musical

Donostia  
San Sebastián  
Abuztua 1-27  
Agosto 2021

### Budapest Festival Orchestra

Ivan Fischer eta Zoltan Kocsisek sortu zuten 1983an, "Hungariako musikari gazteenetatik onenekin", Londresko The Times egunkariak zehaztu bezala. Bere sorrerako helburua orkestrak urtero ematen zituen hiruzpalau kontzertuak Hungariako bizitza musikaleko gertakizun esanguratsuak izan zitezen lortzea zen, baita Budapest nazioartean izen handiko orkestra sinfoniko bilakatzea ere. Gaur egun, taldea ez da soilik Budapest hiriko bizitza musikaleko oinarritzko atal, munduko musika zentro garrantzitsuenek maiz gonbidatua eta miretsia ere bada: Salzburgo, Viena, Luzerna, Zurich, New York, Los Angeles, Paris, Erroma, Amsterdam edo Buenos Aires. Nazioarteko hainbat izen handi aritu da orkestrarekin, besteak beste: Sir G. Solti (orkestraren ohorezko zuzendari gonbidatu izan zen hil arte), Y. Menuhin, K. Sanderling, C. Dutoit, G. Kremer, A. Schiff, H. Holliger, M. Argerich, K. Te Kanawa eta R. Lupu. Hungaroton, Quintana, Teldec, Decca, Ponty eta Berlin Classics zigiluentzat grabatu ondoren, Philips Classics zigiluarekin eksklusibotasuna sinatu zuen orkestrak 1996an. BFOren egonkortasun ekonomikoa hungariar gobernuak eta Budapesteko Udalak bermatzen dute.

Fue fundada por Ivan Fischer y Zoltan Kocsis en 1983, con músicos "extraídos de la flor y nata de los intérpretes más jóvenes de Hungría", tal y como lo precisó el diario londinense The Times. Su objetivo inicial era el de que los tres o cuatro conciertos ofrecidos al año por la orquesta fuesen eventos significativos en la vida musical húngara, así como el de dotar a Budapest de una nueva orquesta sinfónica de prestigio internacional. Hoy en día, la agrupación no sólo es una parte fundamental de la vida musical de Budapest, sino que además es una invitada frecuente y admirada en muchos de los centros de excelencia musical más importantes del mundo: Salzburgo, Viena, Lucerna, Zúrich, Nueva York, Los Ángeles, París, Roma, Ámsterdam o Buenos Aires. Numerosas figuras internacionales han actuado con la orquesta, entre otras: Sir G. Solti (que fue director invitado honorario de la orquesta hasta su fallecimiento), Y. Menuhin, K. Sanderling, C. Dutoit, G. Kremer, A. Schiff, H. Holliger, M. Argerich, K. Te Kanawa y R. Lupu. Tras haber realizado grabaciones para Hungaroton, Quintana, Teldec, Decca, Ponty y Berlin Classics, la orquesta firma un contrato de exclusividad con el sello Philips Classics en 1996. La estabilidad financiera del BFO está garantizada por el gobierno húngaro y el Ayuntamiento de Budapest.



## 82 Musika Hamabostaldia Quincena Musical

Donostia  
San Sebastián  
Abuztua 1-27  
Agosto 2021

### Ivan Fischer

Budapest Festival Orkestraren sortzaile eta musika zuzendaria da, baita Berlingo Konzerthaus eta Konzerthausorchesterren ohorezko zuzendari ere. Konposizioan ere oso aktiboa da, eta bere obrak AEB, Holanda, Belgika, Hungaria, Alemania eta Austrian interpretatu dituzte. Berlingo Orkestra Filarmonikoak 10 aldi baino gehiagotan jo du Fischerren batutapean, eta urtero bi astez Amsterdameko Concertgebouw Orkestrarekin lan egiten du. Era berean, AEBko orkestra sinfoniko garrantzitsuenek maiz gonbidatzen dute, New York Philharmonic eta Clevelandeko Orkestrak, besteak beste. Musika zuzendari bezala, Kenteko Opera eta Lyoneko Opera Nazionala gidatu ditu eta Washingtoneko National Symphony Orkestraren zuzendari nagusi ere izan da. Bere grabazioetako askok nazioarteko sari entzutetsuak jaso dituzte.

Ivan Fischerrek pianoa, biolina, biolontxelo eta konposizioa ikasi zituen, Viena eta Salzburgon zuzendari ikasketak egiten jarraitu baino lehen, H. Swarowsky eta N. Harnoncourtekin. Hungarian Mahler Societyren sortzailea eta British Kodaly Academyren patronoa da. Hungariako Errepublikako Urrezko Domina eta Munduko Ekonomia Foroko Crystal Award eskuratu ditu. Errepublika Frantsesak Arte eta Zientzien Zaldun izendatu zuen.

Es fundador y director musical de la Budapest Festival Orchestra, así como director honorario de la Konzerthaus y Konzerthausorchester de Berlín. Es muy activo también en el campo de la composición, y sus obras han sido interpretadas en EEUU, Holanda, Bélgica, Hungría, Alemania y Austria. La Filarmonica de Berlín ha actuado más de 10 veces bajo la batuta de Fischer y también trabaja dos semanas cada año con la Concertgebouw Orchestra de Ámsterdam. Asimismo, es invitado frecuentemente por las orquestas sinfónicas más importantes de EEUU, incluida la New York Philharmonic y la Orquesta de Cleveland. Como director musical, ha dirigido la Ópera de Kent y la Opera Nacional de Lyon, y fue director principal de la National Symphony Orchestra de Washington. Muchas de sus grabaciones han recibido prestigiosos premios internacionales.

Ivan Fischer estudio piano, violín, violonchelo y composición en Budapest, antes de continuar su educación en Viena y Salzburgo, donde estudia dirección con H. Swarowsky y N. Harnoncourt. Es el fundador de la Hungarian Mahler Society y patrono de la British Kodaly Academy. Ha recibido la Medalla de Oro de la República de Hungría, y el Crystal Award del Foro Económico Mundial. El gobierno de la República Francesa lo nombró Caballero de las Artes y las Ciencias.



## 82 Musika Hamabostaldia Quincena Musical

Donostia  
San Sebastián  
Abuztua 1-27  
Agosto 2021

### Dejan Lazic

Zagreben jaio zen 1977an. Dejan Lazic pianista eta konpositore austriarra da. Hainbat orkestrarekin egin du lan: Budapest Festival Orchestra, Rotterdameko Filarmonikoa, Philharmonia Orchestra, Birmingham Hiria Sinfonikoa, Bambergerreko Sinfonikoa, Irrati Suediarreko Orkestra, Orkestra Daniar Nazionala, Helsinkiko Filarmonikoa, Australiano Ganbera Orkestra eta NHK Orkestra Sinfonikoa. Era berean, hainbat zuzendarirekin aritu da: Ivan Fischer, Vladimir Ashkenazy, Giovanni Antonini, Kirill Petrenko, Robert Spano eta John Storgårds.

Bere bakarkako ibilbideaz gain, ganberako musikari ere bada Lazic. Berriki Herbehereetako Ganbera Orkestrako Artista Egoiliarra izan da, eta kontzertuak eman ditu Amsterdameko Concertgebouwn, Londresko Queen Elizabeth Hallen, Munich Prinzregententheaterren, Washingtoneko Kennedy Centerren, eta baita Montreal, Tokio, Beijing eta Istanbulen ere.

Channel Classics zigiluarentzat grabatzen du eta orain arte dozena bat grabazio kaleratu ditu Scarlatti / Bartók eta Schumann / Brahms konpositoreen obrekin, bere "Liaisons" sailaren barnean.

Nacido en Zagreb en 1977, Dejan Lazic es un pianista y compositor croata con ciudadanía austriaca. Ha actuado con orquestas como la Budapest Festival Orchestra, Filarmonía de Rotterdam, Philharmonia Orchestra, Sinfónica de la Ciudad de Birmingham, Sinfónica de Bamberger, Orquesta de la Radio Sueca, Orquesta Nacional Danesa, Filarmónica de Helsinki, Orquesta de Cámara de Australia y la Orquesta Sinfónica de NHK, trabajando con directores como Ivan Fischer, Vladimir Ashkenazy, Giovanni Antonini, Kirill Petrenko, Robert Spano y John Storgårds.

Paralelamente a su carrera en solitario, Lazic también es músico de cámara. Recientemente ha sido Artista en Residencia con la Orquesta de Cámara de los Países Bajos, y ha ofrecido recitales en el Concertgebouw de Ámsterdam, Queen Elizabeth Hall de Londres, Munich Prinzregententheater, Kennedy Center de Washington, además de en Montreal, Tokio, Beijing y Estambul.

Graba para Channel Classics y hasta ahora ha lanzado una docena de grabaciones, incluidas obras de Scarlatti / Bartók y Schumann / Brahms, todas como parte de su serie "Liaisons".